

Artezkaritza-kontseiluaren bilera-data

Maiatzaren 24an izango da artezkaritza-kontseiluaren hurrengo bilera. Bertan aipatzeko gairen bat izanez gero, artezkaritza@udarregi.eus helbidera bidaliz jakinarazi dezakezue.



Ikastolako kamisetak salgai

Udarregi ikastolako kamisetak Ikastolako idazkaritzan daude salgai. Prezioa 6 eurokoa da. Animatu ikastola egunean kamiseta jantzita etortzera!



Ikastola Eguna

Aurten, **Ikastola Eguna ekainaren 10ean** ospatuko dugu eta egun horretako bazkaria antolatzen hasiak gara. **Maiatzak 22tik ekainak 5era bazkari eta ondorengo festarako txartelak idazkaritzan salgai izango dituzue.**

Hurbilago Ostalaritza Taldearen eskutik jarritako menua:

Ikasleentzat:

- Makarroiak tomatearekin, oilaskoa, izozkia, ogia eta ura: **10 €**

Helduentzat:

- Entsalada, oilaskoa, tarta, ogia, sagardoa/ardoa/ura, kafea eta Pattarra: **16 €**

Alergiaren bat izanez gero, txartela erosteko garaian, bertan jakinarazi.

LH1etik aurrera ikasleak beraien taldearekin esertzeko aukera izango dute, hau ere tiketa erosterakoan adierazi behar da.

Bazkal ondoren ikasleen musika emanaldia eta OSTOLAZA ETA NARBAIZA trikitilariak izango ditugu.



Ekaineko zerbitzuetan izena emateko epea

-Jangela: Ekainaren 5etik 21era eskolak goizez izango diren horretan, jangela-zerbitzuaren erabilera egingo duzuen edo ez jakin nahiko genuke. Hori dela eta, **maiatzaren 26a baino lehen [galdetegi honi](#)** erantzutea eskatzen dizuegu.

-Arratsaldeko zaintza: ekainaren 5etik 21era Ageri-aldeko eraikinean, goizeko zaintza egiten den gelan, arratsaldeko zaintza-zerbitzua eskainiko da 14:30etik 16:30era, baldin eta gutxieneko kopurua osatzen bada.

Zerbitzuan izena emateko [galdetegi hau](#) **maiatzaren 26a baino lehen** bete, mesedez.

Edozein zalantza edo argibidetarako usurbil@ikastola.eus helbidera zuzendu.



Dislegiren eskertza

Dislegi elkarteak osatzen dugun guztion aldetik, eskerrak eman nahi dizkizuegu gure elkartearentzat bildutako diruagatik.

Zuen esfortzua eta lana eskertzen dizuegu.

Orri-markatzaileak eta katiluak salduz jasotako dirua **(265,20 €)** tailer desberdinak antolatzeko erabiliko ditugu.

Espero dugu etorkizunean elkarlanean jarraitzea. Adeitasunez, Dislegi ekipoa



Dislegi

Gipuzkoako Dislexia Elkarteak
Asociación Dislexia Gipuzkoa

Zirimara: izen-ematea

Maiatzaren 15etik 26ra Zirimara familian (HH 0 – 5 urte), Zirimara (LH1 – 4), multikirola (LH5 – LH6), esku pilota (LH1 – DBH2) eskubaloia (DBH1 – 2) eta futbola (DBH1 – 2) izena emateko epea irekiko da. Horretarako, [galdetegi hau](#) bete beharko da eta bertan [baimen orri hau](#) bete, sinatu eta ordainketa ziurtagiria txertatu behar dira. Hemen dituzue eskaintza bakoitzaren [ordutegi eta kuotak](#).



Beste iharduera batzuetako informazioa:

- PINTURA ETA ESKULANAK: Izena emateko eta informatzeko: 609413883
- JUDO: Irailean zehar kiroldegiko tatamira azaldu dadila interesa duena.
- GIMNASIA ERRITMIKOA: Izena eman eta informatzeko: info@tximeleta.eus helbidera edo 943-11-63-42 telefonora.
- EUSKAL DANTZAK:
 - LH 1 - 2: 1. TALDEA: astelehena 16:45 - 17:45
 - LH 1 - 2: 2. TALDEA: ostirala 16:45 - 17:45
 - LH 3 - 4: 1. TALDEA: astelehena 17:45 - 18:45
 - LH 3 - 4: 2. TALDEA: ostirala 17:45 - 18:45
 - LH 5 - 6: 1. TALDEA: asteazkena 16:45 - 17:45

LH 5 - 6: 2. TALDEA: asteazkena 17:45 - 18:45

D.B.H.: Urtero bezala, izena ematen dutenekin bilera egiten dugu kurtso hasieran ordutegia zehazteko. Informazio eta zalantzak: orbeldi.udt@gmail.com

- BOLEIBOL: DBH 1. edo 2. mailan egongo diren ikasleetatik norbaitek boleibol-en izena emateko interesa balu, jar dadila harremanetan eskolakirola@udarregi.eus helbidera idatziz.

Liburutruk 2023/2024

ZER DA LIBURUTRUK?

Sistema honen helbururik nagusia testu-liburuak ahal den ikasturte gehienetan berrerabiltzea da. Hitz Aho Guraso Elkarte eta Ikastolaren artean koordinatuz egiten da. Ikastola liburuak eskatu, familiei kobratu eta ekaineko azken egunean liburuak jasotzeaz arduratzen da. Bestetik, Hitz Aho Guraso Elkarte liburuak sailkatzeaz arduratzen da. Sistema hau erabiltzeko arrazoiak:



1- Seme-alaben heziketa hobetzea: zenbait balore garatzen lagunduko diegu; besteekiko elkartasuna, guztien gauzak zaintzeko joera, komunitatearekiko lotura, kontsumo arduratsua eta inguruarekiko errespetua,...

2- Ekonomikoa: parte hartzen duten familiek liburuetan gutxiago gastatuko dute. Berrerabilgarriak diren liburuen zati bat ordaintzen delako.

3- Ekologikoa: liburuak berrerabiltzeak paperaren kontsumoa eta sortutako zaborra gutxitzen du.

Sistema hau LH5. mailatik gorako ikasleentzat da. Beraz, **ikasturte honetan LH4. mailan dagoen norbaitek ez balu parte hartu nahi, usurbil@ikastola.eus helbidera mezua idatzi beharko luke maiatzaren 26a baino lehen. Gainontzeko mailetakoen kasuan, mezua aldaketarik balego soilik idatziko dute.**

Gogoratu, behin Liburutruken sartuz gero ezingo dela irten, bestela, ordura arte baliatutako hobarien itzulketara egin beharko zaio ikastolari.

Antolaketa horren baitan, hurrengo ikasturteen amaieran, liburuak Ikastolan utzi beharko dituzue eta hurrengo ikasturteetako liburuak eskuratzeaz Ikastola eta HITZ-AHO arduratuko dira.

Ekainaren 16an, parte hartuko ez duela adierazten ez duen familia guztiei, **60 €-ko fidantza** kobratuko zaie eta gerora ez zaie bueltatuko, ez duela parte hartu nahi esaten badu ere.

Ibilaldia 2023

Aurten Ibilaldia Ondarroako Zubi Zahar ikastolari dagokio antolatzea eta **maiatzaren 21ean** ospatuko da. [Informazio gehiago...](#)



Elkartasun uholdea behar dugu zubiak eraikitzen jarraitzeko

Ekaitz erauntsiak Herri Urratsen 40. urteurrena ospatzeko geneukan ametsa zapuztu du. Aurten ezin izan da Zuberoako, Nafarroa Behereko eta Lapurdiko ikastolen aldeko jai erraldoia Senpereko lakuaren inguruan ospatu. Eta besta bere handitasun osoan ezin ospatze horrek milaka euroko galera ekonomikoa ekarri dio Seaskari. Nahiz eta Herri Urrats mugatu bat ospatuko zen, bildutako diruarekin ezinezkoa izango da jaiak berak sorturiko gastuei eta Seaskak dituen beharizan handiei aurre egitea. Hori dela-eta, deialdi zabal bat egiten dute euskal jendarte osoari, Seaskari eta Ipar Euskal Herrian euskara ikasteko hautua egiten duen proiektuari aurrera egiten laguntzeko. Horretarako, ekarpen ekonomikoak egiteko bideak zabaldu dituzte. Honako hauek dira:



- herriurrats.eus/denda web orrialdean sartuta eta materiala erosita.
- Bizum bidez (Hego Euskal Herrian soilik). Dohaintzak egiteko atalera sartu, bilatzailean 'HERRI URRATS' idatzi eta ekarpen ekonomikoa eginda.
- Honako kontu korrante hauetan dirua sartuta:
 - Caisse d'épargne FR76 1333 5000 4008 9397 1116 819
 - Laboral Kutxa ES87 3035 0059 8205 9073 1197
 - Kutxabank ES98 2095 5045 8710 6117 7332
 - Crédit Mutuel FR76 1027 8023 8500 0201 4340 107
- herriurrats.eus/laguntza atalean sartu eta PayPal sistema erabilita.

Zure laguntzari eskerrak zubiak eraikitzen jarraitu ahal izango dute, eta jadanik eraikita dauden zubiak indartzen. Euskaraz bizitzen eta ikasten jarraitu nahi dute. Ekaitzak ez ditzan Herri Urrats eta euskara Iparraldean ito, egin dezagun elkartasun uholdea! Aldez aurretik, eskerrik beroena euskal jendarteari, helarazitako elkartasun mezu guztiengatik.

HAUR HEZKUNTZA

Zorriak

HH-ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



Ipuin-kontakteta Sutegin

Maiatzaren 23an, asteartea, arratsaldeko 18:00etan, Sutegi Liburutegian, IPUIN-KONTAKETA saioa izango da Ixabel Agirresaroberen eskutik, HH5eko haurrentzat.



LEHEN HEZKUNTZA

Irteera kobrantza

Gogoratu GAUR, maiatzak 19, LH 3. mailako ikasleek Irrisarriland-era egindako irteeraren 3. zatia kontu korrante bidez kobratuko dela jakinarazten dugu. Kostua **30,40 €** izango da.



LH 6ko neskei txertaketa

Maiatzaren 25ean, osteguna, Osakidetza LH5. mailako neskei, **giza papilomaren aurkako txertoa** jarriko die, aurrez gurasoek horretarako baimena sinatu badute.



Ipuin-kontaketa Sutegin

Maiatzaren 25ean, osteguna, arratsaldeko 18:30ean, Sutegi Liburutegian, IPUIN-KONTAKETA saioa izango da Dorleta Kortazarren eskutik, 6 urtetik gorako haurrentzat (LH1, eta hortik gorako haurrentzat).



DBH

Liburutruk 2023/2024

Liburutrueko arduradunen partetik eskaera bat iritsi da.

Bolondresak behar dituzte DBHko erabiltzaileen artean jasoketa eta banatze lanak egiteko ikasturte amaieran eta hasieran. Lan horiek 2 egunetan egingo lirateke (ekainaren 26an eta irailaren 4an) eta 3 orduko lana eskatuko luke. Lan karga handia izan ohi da gutxi batzuk egiteko eta askoren artean lana asko arintzen omen da.

Gela bakoitzetik bina bolondres aterata nahikoa lukete lana aurrera ateratzeko.

Bolondresik aterako ez balitz, erabiltzaileen artean zozketa egingo da, bestela, ezinezkoa baita lan horiek aurrera ateratzea.

Mila esker, aldez aurretik.

Guraso elkartea

